

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI

Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduaren esparruan, 2020ko abenduaren 14koa, Covid-19ak eragindako krisiaren osteko susperraldia babesteko Europar Batasuna Berreskuratzeko Tresna bat ezartzen duena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan, 2021eko otsailaren 12koa, zeinaren bidez ezartzen baita Suspertze eta Erresilientzia Plana, Espainiako Gobernuak 2021eko uztailaren 13an Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana (STEP) onartu zuen.

STEP gauzatzeko, estatuko hainbat ministeriok, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat laguntza lerro deitu dituzte, Next Generation Funtz EB izenekoak.

Hala, Turismoaren Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 21eko Ebazpenarekin bat etorriz, zeinaren bidez argitaratzen baita Turismoko Konferentzia Sektorialaren Erabakia, zeinaren bidez Berreskuratze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (2022ko abenduaren 27ko BOE) 1 inbertsioaren 14 osagaiaren esparruan tokiko erakundeek inbertsio jarduketak finantzatzeko bideratutako kredituaren banaketa irizpideak ezartzen diren, baita autonomia erkidegoetarako banaketa ere, Donostiako Udalari 2.120.000 €ko laguntza bat eman zaio "Donostia, enogastronomia esperientzia iraunkor eta berritzailea".

Donostiako Udalak laguntza hau 2023ko uztailaren 26ko Tokiko Gobernu Batzordearen akordio bidez onartu zuen, eta 2023ko abuztuaren 4an Eusko Jaurlaritzarekin honako hitzarmena sinatu zuen: "Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren bidez) eta Donostiako Udalaren artekoa, Donostiako turismoaren jasangarritasuneko plana egikaritzeko Euskadiko turismoaren jasangarritasuneko lurralde planaren esparruan, Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatuta".

Diruz lagundutako jardueren artean, honako hau zegoen: "Ingurumena lehengoratzeko eta

A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

En el marco del Reglamento (UE) n.º 2020/2094 del Consejo, de 14 de diciembre de 2020 por el que se establece un Instrumento de Recuperación de la Unión Europea para apoyar la recuperación tras la crisis provocada por la Covid-19 y del Reglamento (UE) n.º 2021/241, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, el Gobierno de España ha aprobado, con fecha 13 de julio de 2021, el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR).

Para la ejecución del PRTR se vienen convocando por los distintos Ministerios estatales así como por Gobierno Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa, diversas líneas de ayudas que conforman los conocidos como Fondos Next Generation UE.

Así, de conformidad con la Resolución de 19 de diciembre de 2022, de la Secretaria de Estado de Turismo, por la que se publica el Acuerdo de la conferencia Sectorial de Turismo, por el que se fijan criterios de distribución, así como el reparto resultante para las Comunidades autónomas, del crédito destinado a la financiación de actuaciones de inversión por parte de entidades locales en el marco del componente 14 Inversión 1 del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (BOE de 27 de diciembre de 2022) se ha concedido al Ayuntamiento de San Sebastián una ayuda por importe de 2.120.000 € para la ejecución del Subproyecto "San Sebastián, una experiencia enogastronómica sostenible e innovadora".

El Ayuntamiento aceptó esta subvención mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 26 de julio de 2023, y suscribió el "Convenio entre la Administración General del País Vasco, a través del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, y el Ayuntamiento de San Sebastián para la ejecución del Plan de sostenibilidad turística en destino de San Sebastián correspondiente al Plan territorial de sostenibilidad turística en destino de Euskadi, financiados por fondos de la Unión Europea – Next Generation" con el Gobierno Vasco el 4 de agosto de 2023.

Entre las actuaciones subvencionadas se encontraba la actuación 'Mejora de la restauración ambiental y



jasangarritasuna hobetzea”, eta honen barruan “enpresetan jasangarritasuna hobetzeko neurriak ezartzeko laguntzak”. Zenbateko hori partzialki exekutatzen da Donostiako aisia-enpresa turistikoei energia-eraginkortasuna hobetzeko “Europar Batasunak NextGenerationEU funtsen bidez dinantzatzeko duen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia planaren esparruan, Donostiako turismo aisialdiaren eta gastronomiaren arloko enpresen jasangarritasuna hobetzeko neurriak ezartzeko laguntza programaren” deialdiaren bidez 150.000€-rekin, eta berau gauzatzea Donostiako Sustapena SA-ri dagokio. Aktuazioaren exekuzioak dirulaguntza bat eskatzen zenez, honakoa pauso hauek ematea beharrezkoak dira:

- (1) Aipatutako programa horren dirulaguntzak emateko oinarri erregulatzailak eta deialdia onartzea.
- (2) Donostiako Sustapena SA erakunde laguntzaile izendatzea aurreko puntuan aipatu den laguntza programa gestionatzeko.

Dirulaguntzen deialdiak eta emakidak ez datoz bat Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluan jasotako enkarguaren figurarekin, ez baitira obra-kontratuen, horniduren, zerbitzuen, obra-emakiden eta zerbitzu-emakiden berezko prestazioak. Aldiz, indarrean dagoen araudiak Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan aurreikusten duenez, erakunde laguntzaileak dira dirulaguntza ematen duen organoaren izenean eta kontura jardun, eta onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen dutenak. Bigarren figura juridiko horrek aukera ematen du Donostiako Sustapena SAren eta Udalaren arteko lankidetzak aipatutako programan emandako dirulaguntzak kudeatzeko.

Donostia Sustapena, S.A. hirian diren enpresak sustatu eta ekonomia aldetik garatzeko sortutako udal sozietatea da, politika eta jardura batzuk sustatzeko, iraunkortasun eta berrikuntza irizpideetan oinarrituta, tokiko ekonomia-sarearen lehiakortasunari eusten eta hobetzen laguntzeko. Erakunde espezializatua den aldetik, arlo horretako dirulaguntzak kudeatzen eta ematen ari da Donostia Sustapena; eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da laguntza hauek kudeatzen

sostenibildad’, y dentro de ésta la actividad consistente en las “ayudas a la implantación de medidas en las empresas para la mejora de la sostenibilidad”, y que se iba a ejecutar parcialmente con 150.000 € a través de la convocatoria de subvenciones “Programa de ayudas a la implantación de medidas para la mejora de la sostenibilidad en el sector ocio-turístico y gastronómico de San Sebastián en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia financiado por la Unión Europea – NextenerationEU”. Dado que la ejecución de esta actuación requiere de una convocatoria de subvenciones, se considera necesario los siguiente:

- (1) Aprobar bases reguladoras y convocatoria para otorgar subvenciones en el marco del programa antedicho.
- (2) Nombrar a Fomento de San Sebastián, S.A. entidad colaboradora a los efectos de gestionar el programa de ayudas mencionado en el punto anterior.

Las convocatoria y concesión de subvenciones no encajan en la figura del encargo recogida en el artículo 32 de la Ley de contratos del sector público, puesto que no se trata de prestaciones propias de contratos de obras, suministros, servicios, concesión de obras y concesión de servicios. En cambio, la normativa vigente contempla en el artículo 12 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones que las entidades colaboradoras son las que “*actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a los beneficiarios ... o colabore en la gestión de la subvención*”. Esta segunda figura jurídica permite la colaboración de Fomento de San Sebastián S.A. con el Ayuntamiento en la gestión de las subvenciones concedidas en el programa aludido.

Fomento de San Sebastián S.A. es la Sociedad municipal creada para la promoción y desarrollo económico de las empresas de la ciudad orientada a la promoción de políticas y actuaciones que, bajo criterios de sostenibilidad e innovación apoyan el tejido económico local para mantener y mejorar la competitividad. Como ente especializado, Fomento S.A. viene gestionando y concediendo subvenciones en este campo por lo que se considera necesaria su participación en la gestión de las presentes ayudas. A





ere parte hartzea hark. Hala, entitate laguntzaile izendatuta dago; 2003ko azaroaren 17ko dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikulua eta hurrengoek xedatzen duten eran.

Dirula

guntza hau jasota dago Donostiako Udalaren eta erakunde instrumental hauen Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoan: Kiroletako Udal Patronatua, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa eta Donostiako Sustapena S.A., Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuena 2024ko martxoaren 26an honako izen honekin: "Donostiako aisia-enpresa turistikoei jasangarritasuna hobetzeko enpresetan neurriak ezartzeko laguntzak" (79. fitxa) .

Horregatik guztiagatik, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontuak kudeatzeko Zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzen dizkio ondorengo

AKORDIOAK:

LEHENA.- Ondorengo oinarri eta deialdi hauek onartzea (I eranskin modura doaz akordio hauekin batera):

Oinarri arautzaileak, Donostiako eremu enogastronomikoko jasangarritasuna hobetzeko neurriak ezartzeko laguntza programaren oinarri arautzaileak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua NextGenerationEU

BIGARRENA.- Onartzea Donostiako Sustapena SA udal sozietatea erakunde laguntzaile modura lehen akordioan aipatutako laguntzak gestionatzeko.

HIRUGARRENA.- Onartzea Donostiako Udalaren eta Donostiako Sustapena SA-ren arteko hitzarmena (II eranskin modura doana irizpen honekin batera), azken horrek erakunde laguntzaile gisa jardun dezan, Errekuperazio, eraldaketa eta erresilientzia Planaren baitan, eta Europar Batasunak Next Generation funtsen bidez finantzatutako Donostiako eremu

tal fin, se le declara Entidad colaboradora en los términos de los arts. 12 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Esta subvención está contemplada en el Plan Estratégico de Subvenciones Conjunto 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián y de los siguientes Entes Instrumentales: Patronato Municipal de Deportes, Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura y Fomento de San Sebastián S.A., aprobado por Junta de Gobierno Local de 26 de marzo de 2024 con la denominación "Ayudas a la implantación de medidas en las empresas para la mejora de la sostenibilidad a empresas ocio turísticas de San Sebastián" (ficha n.º 79).

Por lo expuesto, el Concejal Delegado de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria, propone a la Junta de Gobierno Local, la adopción de los siguientes

ACUERDOS:

PRIMERO.- Aprobar las siguientes bases y convocatoria que se adjuntan como anexo I a los presentes acuerdos:

Bases reguladoras del programa de ayudas a la implantación de medidas para la mejora de la sostenibilidad en el sector ocioturístico del ámbito enogastronómico de San Sebastián en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea – Next Generation.

SEGUNDO.- Aprobar la declaración de Entidad Colaboradora de la Sociedad municipal Fomento de San Sebastián S.A. para la gestión de las ayudas mencionadas en el acuerdo primero.

TERCERO.- Aprobar el Convenio adjuntado al presente dictamen como Anexo II entre el Ayuntamiento de San Sebastián y Fomento de San Sebastián S.A. para la actuación de esta última como entidad colaboradora para la gestión del programa de ayudas a la implantación de medidas para la mejora de la sostenibilidad en el sector ocioturístico del





enogastronomikoko jasangarritasuna hobetzeko neurriak ezartzeko laguntza programako laguntzak gestionatzerakoan.

LAUGARRENA.- Ekonomia eta Enplegu Zinegotzi Ordezkarari delegazioa ematea laguntzak emateko, eta hala dagokionean diru-itzulketak ebazteko.

BOSGARRENA.- Donostiako aisia-enpresa turistikoei jasangarritasuna hobetzeko enpresetan neurriak ezartzeko laguntzen programa kudeatzeko 150.000 €ko gastua "Enogastronomia" programako 2024 aurrekontuko 733.09.03/23 partidari egozte.

ámbito enogastronómico de San Sebastián en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea – Next Generation.

CUARTO.- Aprobar la delegación en la Concejala delegada de Economía y Empleo para la resolución de concesión de ayudas, y reintegros si corresponden.

QUINTO.- Imputar el gasto para la ejecución del programa de ayudas a la implantación de medidas en las empresas para la mejora de la sostenibilidad a empresas de San Sebastián que asciende a 150.000 € a la partida 733.09.03/23 del programa "Enogastronomia" presupuesto 2025.
ocioturísticas

Donostian, sinaduraren datan

Kerman Orbegozo Uribe
Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontuak kudeatzeko Zinegotzi ordezkaria

Edorta Azpiazu Laboa
Zeharkako Zerbitzuen koordinatzailea

Eñaut Apaolaza Amenabar
Zeharkako Zerbitzuen Koordinazioko teknikaria

